



04/ BATZARRA / 2013

**BERASTEGIKO UDALAREN  
2013ko urriaren 3ko APARTEKO ETA PRESAZKO UDALBATZARREN AKTA**

*Berastegin, 2013ko urriaren 3an, 17:30k izanik Udaletxeko Areto Nagusian bildu dira, Aritz Mujika Saizar jauna alkatearen presidentziarekin.*

*Alkateordea:*

*Amaia Azkue Eizagirre Anderea.-*

*Zinegotziak:*

*Estibaliz Saralegi Labaien Andrea*

*Ane Urkizu Lasarte Andrea*

*Mikel Beloki Urkizu Jauna*

*Leire Garaiburu Arcelus Andrea*

*Mirari Saizar Zinkunegi Andrea*

*Maialen Etxeberria Masa Andrea*

*Bertan dago eta fede ematen du idazkari-kontuhartzaileak:*

*Maria Pilar Garmendia Miguel Andrea.*

*Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 17:30 ordu direnean, alde aurretik deitutako aparteko eta presazko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.*

*Lehendakariak akitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduaz, deialdia premiazko izaeraz egin denez, botoetara eraman da premiazlotsun hori, eta aho batez sendetsi dute deialdia. Ondoren, eguneko gai-zerrendan sartutako gaia eztabaidatzeari ekin diote..-*

**BAKARRA:**

**MOZIOA: "HERRIRA MUGIMENDIAREN AURKAKO OPERAZIOA ETA BERTAKO 18 PERTSONEN ATXILOKETA GAITETZEA" IZENEN MOZIOA.-**

*Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:*



Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta hamazortzi euskal herritar atxilotu zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik. Aitzitik, PPren gobernuak hasieratik uko egin dio errealtate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.

Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan dira. Euskal presoek eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarritzko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriraren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoek euskal herritarrearen eta euren eskubideen aldeko gehiengo sozial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarreratik abiatuta, Herriraren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztokatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politiko horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez da kasualitatea, hain zuzen ere Estrasburgoko Epaitegiak betirako kartzelaratzeko ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik udal honek ondoko ebazpenak onartu nahi ditu:

- 1.- Berastegiko Udalak Herriraren kontra burutu den operazio poliziala eta atxilotetak herri hone gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.
- 2.- Berastegiko Udalak Herriraren kriminalizazioa helburu izan dezaketek ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoek berehalako askatasuna eskatzen du.
3. Berastegiko Udalak euskal presoek euskal herritarrearen eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu.
- 4.- Presoek eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.

*Presidentziak aurkeztutako mozioa bozkaturik, onartua gertatzen da.-*



*Egoera honetan, 17:35 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.-*

*Berastegin, 2013ko urriaren 3a.*

*Alkateak,*  
  
*Aritz Mujika Saizar*

*Udaleko Idazkari-kontuhartzaileak,*

*Maria Pilar Garmendia Miguel*  
